




Lehia politikoaren azken txanpa

Domekan 2020-2024 legegintzaldirako Eusko Legebiltzarreko hauteskundeak izango dira. Koronabirusak abstentzioan eduki dezakeen eragina izango da giltzarrietariko bat. ANBOTOk hauteskunde egunaren jarraipena egingo du web orrian • 10



Aurten, osasuna; datorren urtean, jaia

Durangoko jaiak bertan behera uztea erabaki dute udalak eta herriko eragileek. Osasuna lehenetsi dute kutsatze foku berriak saihesteko • 2

Turistei begirako informazio gune berria ipini dute Otxandioko plazan

Otxandio | Azkenaldian herrira doazen bisitarien kopurua hazi egin delako ipini dute martxan zerbitzu berria. Uztailean, abuztuan eta irailean zehar egongo da zabalik, asteko hainbat egunetan. • 8



Ekuru taldeak disko berria aurkeztuko du, gaur, Durangoko Plateruenean

Musika | Osasun krisiaren erruz, diskoaren aurkezpena bertan behera utzi behar izan zuten, eta gaur egingo dute, Uda Kulturaz Blai! jaialdiaren barruan. Jendaurrean aritzeko "gogotsu" daudela adierazi dute taldekideek. • 25



DURANGO • EKAITZ HERRERA

Pauso bat atzera, datorren urtean indarberrituta bueltatzeko. Durangoko Udalak eta herriko eragileek urrian egitekoak ziren jaiak bertan behera uzteko erabakia hartu dute asteon. Erabakia irmoa izan da, elkarteek eta udaleko ordezkariak aho batez hartutakoa. Erabaki mingarria ere bai, jakina, baina, batez ere, arduratsua. Izan ere, osasun krisialdiarekiko "erantzukizunez" erabaki dute aurtengo jaiak ez ospatazea.

"Zentzurik bakoa izango zen hemen ezer gertatuko ez balitz lez jokatzeara"

Kutsatze foku berriak ekidin gura izan dituzte, kosta ahala kosta. "Zentzurik bakoa izango zen hemen ezer gertatuko ez balitz lez jokatzeara", azaldu du Durangoko Udalak. "Denon osasuna dago jokoan, eta durangar guztioi dagokigu arduraz jokatzeara; beraz, ezingo dugu ekitaldi jendetsurik ospatu", esan dute.

Durangoko jai batzordeak ekainean ekin zien batzarrei, zer egin pentsatzeko. Udaleko ordezkariak eta herriko askotariko eragileak batu dira bileretan. Herriko auzo elkarteak, Txosna batzordeko kideak eta Durangoko Alde Zaharreko Tabernarien elkarteak elkartu dira,

Jokabide arduratsua aurten, Durangoko jaiak indarberrituta itzuli daitezzen datorren urtean

Durangoko Udalak eta herriko eragileek osatutako jai batzordeak jaiak bertan behera uztea erabaki du, aho batez



Sugarri txarangako kideak, iazko jaietan.

Jaien alternatiba modura, ekitaldi kultural gehiago programatzea aztertzen dabil Durangoko Udalak

besteak beste. Jaien alternatiba modura, ekitaldi kulturalen eskaintza handitzea pentsatzen dabil udala. Martxan dagoen Uda Kulturaz Blai egitasmoa markatu

dute jarraitzeko moduko bide modura. "Aurten modu askoz seguruagoak bilatu beharko ditugu San Faustoak gogoratzeko, denon esku dagoelako etorkizunera begira

jartzea eta durangarron osasuna arriskuan ez ipintzea. Datorren urtean izango dugu aukera Patxi-kotxu eta Pantxikeri ongi etorria emateko", adierazi dute.

Durangoko herritarrek 22 proiektu bozkatu beharko dituzte 2021ari begirako aurrekontu parte-hartzaileetan

Proposamenen artean kale-frontoiak ipintzea, argiteria hobetzea edo bidegorria egokitzea daude. EAJk kritikatu egin du diru partida 600.000 eurotik 100.000ra jaistea



Julian Rios alkateordea eta Ima Garrastatxu alkatea.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Udalak martxan ipini ditu 2021era begirako aurrekontu parte-hartzaileak. Herritarrek bozketaren bitartez erabakiko dute zertara bideratuko diren aurrekontu osoaren 100.000 euro. 22 proiekturen artean bozkatu beharko dute. Oraingoz, udalak ez du zehaztu zeintzuk diren bozkatu beharreko proposamenak, baina

Durangarrek uztailaren 31ra arte izango dute epea 22 proposamenen artean botoa emateko

Iker Urkiza zinegotziak (EH Bildu) ANBOTOrri azaldu dionez, askotariko proiektuak egongo dira. "Auzoetako argiteria hobetzeari lotutako ideiak, kale-frontoiak eraikitze

proposamenak, bidegorri-sarea hobetzeko proposamenak, emakumeen futbola bultzatzeko ideiak edo hiri-baratzeak" egongo dira, besteak beste, 22 proposamenen artean. Durangarrek uztailaren 31ra arte izango dute epea aurrekontu parte-hartzaileetan bozkatzeko. Horretarako, <http://partehartu.durango.eus/inicio> atarira jo beharko dute.

Durangoko EAJk "sorpresa handia" hartu du 2021erako aurrekontu parte-hartzaileen diru partidagaz. Aurtengoek 600.000 euroko inbertsioa izan dute; datorren urteko udal aurrekontuan txertatuko direnek, oster, 100.000 eurokoa. Mireia Elkoroiribe EAJren bozera-mailaren berbetan, "sinestezina da aurrekontu parte-hartzaileen aldarrikatzaile nagusienak ei direnek udal aurrekontuaren %0,002 baino ez bideratzea horretara".

"Iruindarra izanda, urtero-urtero ospatzen ditut San Ferminak; aurtengoa izango da jaiak ospatuko ez ditudan lehenengo aldia

Iruñeko sanferminak bertan behera geratu direla-eta, Durangaldeko hainbat lagunek pena sentitu dute. Ainara Ibañez da euretariko bat.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Ainara Ibañez Iruñekoa da, baina hainbat urte daramatza Durangon bizitzen. 39 urtean, aurtengoa du sanferminik bako lehenengo urtea.

San Fermin jairik bako urtea da aurtengoa. Zein sentipen sortzen dizkizu egoerak?

Egia esan, sanferminik egongo ez zen ideia hori lehendik ere banuen barneratuta. Ahalegindu naiz ideia hori baztertzen, baina kontua da sare sozialetan lagun guztiak ari direla argazkiak eta bideoak partekatzen, eta, ondorioz, zaila da jaiak burutik kentzea. Uztailearen 6an, txupinazoaren egunean, Durangon geratu nintzen. Ez nuen Iruñeko Alde Zaharra zapaldu gura. Jaiak bertan behera geratu diren arren eta kaleko hamaike-takoak debekatu dituzten arren, jendetza egongo delakoan nago. Jendea irrika horri ezin eutsita ibiliko da.

Zelako garrantzia dute sanferminek zuretzat?

Urte hasieraren eta urte amaie-raren modukoak dira. Izugarri deskonektatzen dut. Jaia barru-barrutik bizi dut. Erraldoien konpart-sagaz txistua jotzera irteten dut; baita Duguna dantza taldeko ki-deekin ere. Azkenengo erraldoia-gaz batera joaten naiz kalejiran, Brauliagaz. Uztailearen 6an, txu-pina jaurti eta gero, udaletxe ba-rruan egoten gara txistua jotzen. Pamplonesako kideak ere egoten dira bertan. Momentu hori aurt-en ezin bizitzeak, adibidez, egundoko pena eman dit.

Urtero-urtero ospatu izan dituzu sanferminak?

Bai, urtero. Aurtengoa izango da San Ferminak ospatuko ez ditudan lehenengo aldia. Txikia nintzela ur-teren batean kanpora joan nintzen egun batzuk pasatzera, baina beti egon naiz San Ferminetan.

Koronabirusik barik, zelan ospatu izan dituzu orain arteko jaiak?

Erraldoien konpart-sagaz irten ohi dut, bospasei egunean, 9:30etik ia 15:00ak arte. Gero, ia egun guz-



Ainara Ibañez, erdian, txistua eta danbolina eskuetan.

"San Fermin jaiak bertan behera geratu diren arren, Iruñean jendetza ibiliko delakoan nago"

tietan bazkariren bat izaten dut kalean. Berdin dantza taldeko kideekin edo Zaldiko Maldiko eus-kara elkarteko kideekin, Karrikiri topagunean... Eguna txistua jotzen pasatzen dut. Bazkariak luzatu egi-ten dira eta 3:00ak baino lehenago etxeratzen ahalegintzen naiz.

Dantza taldeko kideekin ere izaten ditut emanaldiak.

Eta aurt-en? Egingo duzu ezer sinbo-likorik?

Ez naiz sinbolo zalea. Nire asmoa herrira joatea da, beste plan bat egitea, San Ferminak ahazteko ahal dela.

"Pena dut aurtengoagaitik; San Ferminetan egoten den giroa ez da beste inon topatzen, ez dago parekorik munduan"

Jon Jiménez abadiñarrak pena du aurt-en ezingo delako Iruñera joan. 19 urtean joan izan da San Fermin jaietara, urtero, hutsik egin barik

ABADIÑO • EKAITZ HERRERA

Jon Jiménez Rebollo (Abadiño, 1984) San Fermin jaien zale amorratua da. Turisten erara barik, iruindarren erara gozatzea gustatzen zaio, ohiko toki-etatik aldentuta eta bertakoen giroan sartuta.

Aurt-en, ezinbestean, txandapasa egin beharko da...

Bai. Horixe tokatzen da, ez dago besterik. Pena handia dut aurt-en-goagaitik. San Ferminetan egoten den giroa ez da beste inon topa-tzen. Ez dago haren pareko ezer munduan. Ezagutu izan ditudan jaien artean, behintzat, ez dago parekorik. Gainera, asko gustatzen zait zezenen inguruko mundu hori guztia. Ezaugarri askogaitik dira bereziak San Ferminak.

Zelan ospatzen dituzu San Fermin jaiak?

Lanak baimentzen didan aldiro joan izan naiz Iruñera. Lagunak ditut han eta hiruzpalau egun pasatzen ditut hirian. Noizbait etxeren bat alokatu izan dugu.

Beste hainbatetan hango lagun-en etxean hartu izan dut ostatu; ber-din aste barruan zein asteburuan. Baina turisten erara barik, San Ferminak iruindarren erara goza-tzea gustatzen zait. Entzierroa, ha-maiketakoa, giroa,... iruindarren ohituretan murgiltzea gustatzen zait, azken finean, haiek beste era batera bizitzen dituzte-eta San Fer-min jaiak.

Beraz, entzutetsuenak diren toki-etatik aldentuta egiten duzu jaiak?

Bai, ohiko zarraparra girotik kan-pora mugitzen gara. Iruindarrak ez doaz turistez betetako tokietara. Hortik ihes egiten dute. Sarritan erdigunetik kanpoko tokietan egiten dituzte hamaiketakoak, hiriko beste toki batzuetan. Dena aldatzen da, jatekoa ere bai. Ez du zerikusirik.

Eta aurt-en, zer?

Hango lagunekin berba egin dut telefonoz. Ez dute festa erraldoirik egingo, jakina. Talde txikian batu-ko dira, behintzat elkarregaz egon eta hamaiketakoa egiteko.



Jon Jiménez, ezkerrean, eskualdetik joandako beste hainbat lagunekin.



Dagoeneko bigarren zubiko habeak ipini dituzte.

URA agentziak bigarren zubiko habeak ipini ditu Toloto erreka gainean

URA Agentzia eta Elorriko Udala elkarlanean dabilta herri azpitik igarotzen den Toloto erreka berbideratzeko asmoz

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

2011n hiri antolamendurako plan orokorra onartu zenetik, Elorriko Udala lanean ibili zen URAgaz hitzarmena sinatzeko. 2018ko urtarrilean sinatu zuten hitzarmena eta iazko azaroan ekin zieten lanei. Lanok hainbat hile iraungo dute. Joan zen asteen, URAk jakinarazi zuen bigarren zubiko habeak ipini dituela Toloto erreka gainean. 18,83 metroko argia duen zubia da, ibilgailuen trafikoa igarotzeko azpiegitura berria.

Toloto erreka Ibaizabal ibaia- ren eskumaldeko ibaiadarra da; 3 kilometro inguruko luzera du iturburutik Ibaizabalegatzat egin

aurretik; eta azken 300 metroak Elorriko herrigunetik igarotzen dira. Gaur egun, Toloto erreka lurrazpitik sartzen da Esteibarlanda inguruan, eta herria zeharkatzen du.

2019. urte amaieran hasi zituzten lanak, eta erreka kanpora ateratzea eta Errebonbilo kalean Zumelegi erreka-gaz bat egitea da helburua.

Gaur egun, Toloto erreka lurrazpitik sartzen da Esteibarlanda inguruan, eta herria zeharkatzen du

Elorriko Udalak diruz lagunduko die eskolako jantokirik barik dauden familiei

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorriko Udalak premiazko deialdia egin du egoera sozioe- konomiko txarra bizi duten zenbait familiari diru-lagun- tzak emateko. Hain zuzen ere, eskola zerbitzua erabili duten baina gaur egun COVID-19aren ondorioz erabili ezin dutenei. Familia-unitate bakoitzari 90 euroko diru-laguntza emango diote eskolatutako seme-alaba bakoitzeko.

Hau ez da arlo horretan uda- lak hartu duen neurri bakarra. Aurretik ere hainbat neurri har- tu dituzte. Udaletik jakinarazi dutenez, osasun krisian adin- gabe horien elikadura egokia bermatzea da laguntza hauen helburua, premia biziko elika- gaiak erosita.

Atxondoko igerilekuak asteen zabaldu dituzte, 250 laguneko aforoagaz eta hainbat neurri hartuta

Egun bi lehenago egin ahal izango dira igerilekuko erreserbak 'www.atxondokoigerilekua.com' web orriaren bitartez

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxondoko igerilekuak asteen za- baldu dituzte, ohi baino geroago, baina hainbat segurtasun neurri hartuta. "Ulertzen dugu igerile- kuez gozatzeko dagoen gogoia, baina arduratsua izan behar dugu osasun neurriekin. Horregaitik, irekiera atzeratu behar izan dugu, erabiltzaileen segurtasuna bermat- zea delako helburu nagusia", esan du Xabier Azkarate alkateak.

Hainbat segurtasun neurri har- tuta eta aforo mugatuagaz zabaldu dituzte igerilekuak. Berdegunean 250 lagun baino ezingo dira egon gehienez jota, eta uretan 100 lagun. Jende kopuruarena ez da hartu duten neurri bakarra; igerilekuan seinalizazio-geziak eta gel desin-

fektatzailea ipini dituzte, eta alda- gelak ere zabaldu dituzte. Hala ere, aldagelak ahalik eta gutxien erabil- tzea gomendatu dute udaletik.

Aldagelak ahalik eta gutxien erabiltzea gomendatu diete erabiltzaileei udaletik

Bestalde, erreserbak www.atxondokoigerilekua.com web orriaren bitartez egin beharko dira. Ordua egun bi lehenago hartzeko aukera dago, eta erreserba baliobakotu gu- ra izanez gero ordubete lehenago egin daiteke hori.



Atzo zabaldu zituzten igerilekuak.



'Aisialdia udan' martxan da, Berrizko gazteen gozamenerako

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Berrizko Udalak Bizi Berriz kanpaina martxan ipini du, uda dinamizatu eta herria eko- nomikoki zein soziokulturalki suspertzeko asmoz. Kanpai- naren barruan, *Aisialdia udan* programa antolatu dute. 3tik 12 urtera bitarteko haurrek kirol eta kultur jardueraz gozatzeko egitaraua prestatu dute, eta he- rriko gaztetxoek hainbat ekin- tzez gozatzeko aukera izango dute uztailaren 23ra bitartean.

anboto

Bixente Kapanaga, 9 48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2020ko uztailaren 10a
18. urtea - 815. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabari.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretti Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Bea Sierrasumaga Guezuraga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

EUSKO JAURLARITZA

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

“Arduratuta geunden ea umeek eta familiekin zelan erantzungo zioten egoera berriari”

Hiru hilabeteen itxita egon eta gero, ekainaren 22tik zabalik dago Kurutziaga Ikastolako haurtzaindegia



HEZKUNTZA • MAIALEN ZUAZUBISKAR
Dagoeneko hiru aste daramatzate lanean Kurutziaga Ikastolako Haur Hezkuntzako lehen zikloan. Hasierako urduritasuna atzean utzita, lanean buru-belarri dabilte. ANBOTOK Cristina Calvo lehenengo zikloko koordinatzaileagaz eta Uxuri Gallastegi Haur Hezkuntzako arduradunagaz berba egin du.

Ekainaren 22tik zabalik dago Haur Hezkuntzako lehen zikloa. Zelan joan dira lehenengo asteak?

Uxuri Gallastegi: Hasieran beldur orokor bat geneukan, ea zelan funtzionatuko genuen, zelan erantzungo genion honi. Ez genekien prestatzen genbiltzan antolaketa egokia izango zen ala ez. Baina

konturatu gara beldur hori handiagoa zela prestaketetan, gero baino. Arduratuta geunden ea umeek eta familiekin zelan erantzungo zioten egoera berriari. Behin martxa hartuta, bazoaz aurrera.

Zenbat umegaz zabaldu duzue Haur Hezkuntzako lehen zikloa?

U.G.: Zortzi umegaz. Berez, 115 ume ditugu, baina konfinamendu ostean, zortzi. Egia esan, egoera normalean ere, uztailean ume gutxiago izaten dugu. Gutxitu egiten da ume kopurua, erdia izaten da gutxi gorabehera, ikasturtearen arabera. Ez da 115etik 8ra bajatu garela; egoera normal batean ere, sasoi honetan ume kopurua baxua izaten da.

Cristina Calvo: Normalean, maila

gutzieta beherakada txiki bat egoten da. Baina ez horrenbestekoa.

Momentu honetan dituzuen umeak familia-profil konkretu batekoak dira?

U.G.: Bai, orain ditugun ume guztiak edo ia guztiak guraso biak lanean dituzten familietako seme-alabak dira. Egia esan, HHko lehen zikloa zabaltzea erabaki genuenean, beharrian horri erantzutea

“**Momentu honetan ditugun ia ume guztiak guraso biak lanean dituzten familietako seme-alabak dira**”

zen gure asmo nagusia, dekretuan agertzen zen moduan, bagenekien eta familia batzuek honen premia izango zutela. Hala ere, hasieran batzuek izena eman zuten arren, gero ez dira etorri. Uste dugu batzuei beldurra eman diela horren ume gutxigaz zabaltzeak.

Hainbat neurri hartuta zabaldu duzue.

U.G.: Hala da, bai. Umeak eta umea ekartzera datorrena etxean tenperatura hartuta etortzen dira, eta sarri prest izaten dituzte eskuak garbitzeko gela eta oinetakoak desinfektatzeko alfonbra txikia. Umea ekartzen duenak maskara ipinita izan behar du momentu oro. Horrez gainera, ezin dute jostailurik ekarri, eta egunean eguneko

arropa eta oinetakoak bakarrik ekarri ditzakete.

Guk maskaragaz egon behar dugu denbora guztian, eta amantala egunero eraman behar dugu etxera, aireztatu edo garbitzera. Gelan egoteko, gelarako baino ez diren oinetakoak janzen ditugu. Horrez gainera, umeak ez ditugu batzuk besteekin nahasten. Maila bakoitzekoak euren mailakoekin daude.

C.C.: Eguraldiak laguntzen badu, espazio zabaletan egoteko aprobetxatzen dugu. Bestalde, gelan gauden momentuetan, ume bakoitzari jostailu bat ematen diogu eta erabili eta gero desinfektatu egiten dugu.

“**Zabaltzeko prestaketetan ibili ginenean, beldurra askoz ere handiagoa zen; ezjakintasun puntu bat genuen**”

Aste batzuk igaro eta gero, zein balorazio egiten duzue?

U.G.: Lasaitasun handia dugu.

C.C.: Ume kopurua oso txikia da, eta balorazioa egitea gaxa da. Hala ere, egoera berri honetara horrela egokitzea luxu bat da.

Aste hauek balioarriak dira datoren kurtsoarako martxa hartzeko?

U.G.: Entsegu txiki bat dela esango nuke. Zabaltzeko prestaketetan ibili ginenean, beldurra askoz ere handiagoa zen; ezjakintasun puntu bat genuen. Baina, behin martxan ipintzen zarenean, ikusten duzu zelan egin behar dituzun gauzak. Dena dela, irailean izango dugun eszenatokia askoz ere konplexuagoa izango da, ikastolan ikasle guztiak izango ditugu eta. Osasun eta segurtasun jarraibideak antolatzea eta kuadeatzea izango da hurrengo erronka.

C.C.: Une honetan dugun ume kopurua ez digu datu zehatzik ematen irailean zelan egongo garen jakiteko. Hala ere, laguntzen digu irailean topatu ditzakegun arazoak zeintzuk diren jakiten. Baita normalitate berriko neurrietara egokitzen ere.

 **Smurfit Kappa**
Central Forestal

50 urte
EUSKADIKO
PINUDIAK
ZAIINTZEN

 **Smurfit Kappa**
Nervión

Bost hilabete joan dira Eitzagako hondakindegian luizia izan eta Joaquin eta Alberto beharginak desagertu zirenetik

Zaldibar Argitu plataformak mobilizazioa egin du, asteon, Zaldibarko udal plazan. Zabortegean, aurrera segitzen dute behargin biak topatzeko lanek



Astelehenean mobilizazioa egin zuten Zaldibarren.

ZALDIBAR • EKAITZ HERRERA

Zaldibar Argitu plataformak Joaquin Beltran eta Alberto Sololuze beharginak gogora ekarri ditu asteon. Astelehenean bost hilabete bete ziren Eitzagako zabortegean lur-jausia gertatu eta behargin biak desagertu zirenetik. Data

hori aintzat hartuta, Zaldibarko hainbat herritarrek mobilizazioa egin zuten astelehenean. 151 zenbakia mosaiko bihurtu zuten, hain zuzen ere, astelehenean 151 egun bete zirelako ezbeherra gertatu zirenetik. Gaizka Zabarte Zaldibar Argitu plataformaren bozeramailea

da. Haren esanetan, hileak joan diren arren ardura politikoak hartu barik daude gaur egun. "Astelehenean 151 egun bete ziren lur-jausia gertatu zenetik. Azpimarratu gura dugu beharginek hor segitzen dutela oraindino, ez dugula ingurumen kalteen informaziorik,

ez dugula hondakindegian gorde izan diren substantzien berririk, eta eremu politikoan ez dela ez ardurarik hartu ez autokritikarik egin", azaldu du Zabartek.

Zaldibarren egindako mosaikoa ez da azken egunotako mobilizazio bakarra izan. Durangaldetik

kanpora ere izan dira protestak. Eibarren, esaterako, manifestazioa egin zuten joan den zapatuan, hondakindegian gertatutakoaren gaineko erantzukizun politikoak hartu daitezzen eskatzeko. Eibarko Untzaga plazan hasi eta amaitu zen mobilizazioa. Zaldibar argitu kanta abestu zuten ekitaldiaren amaieran.

"Eremu politikoan ez da ardurarik hartu; autokritikarik ere ez da egin"

Sorturen pankarta

Sortu alderdia izan da Eitzagako ezbeherra gogora ekarri duen beste eragileetariko bat. Alderdiko hainbat aktibistek pankarta erraldoi bat ipini zuten astelehenean, Eitzagan, A-8 autobidearen parean. Bizkaiko Foru Aldundiak lur-jausi gehiago ekiditeko asmoz eraikitako harresian eskegi zuten pankarta. Iñigo Urkullu lehendakariaren irudia ikusten zen bertan. "EAJk eta Eusko Jaurlaritzak" Zaldibarko hondakindegia gertakarian "erakutsitako ardurabakokeria" salatu gura izan zuen Sortuk.

Garaiko Udalak oinezkoentzat mugatuko du Kurutzondotik San Migel elizarainoko pasabidea

Ibilgailuen zirkulazioa debekatuta egongo da Garaiko Udalak beren-beregi baimendutako kasuetan izan ezik



Kurutzondotik San Migel elizarako pasabidea.

GARAI • EKAITZ HERRERA

Ibiltarien segurtasuna, lasaitasuna eta pasabidearen beraren mantenua ziurtatzeko asmoz, Garaiko Udalak oinezkoen hiribide lez izendatu du Kurutzondotik hilerirainoko pasabidea. Horrek eragina izango du San Migel elizarako tartean, hain zuzen oinezkoen erabilerrara mugatuko delako. Lehendik ere hala zegoen araututa, baina Garaiko Udalak azaldu du arau-hausteak egiten direla gaur egun. "Ibilgailuak etenik barik zirkulatzen ari dira Kurutzondotik hileriraino doan bidetik zehar", azaldu dute. "Horrek arriskuan ipintzen ditu oinezkoen segurtasuna, bertatik lasai igarotzea, eta azpiegitura horren mantenua".

Udalaren baimenik barik ezin da ibilgailurik sartu pasabidera. Haren erabilera zamaletara mugatuko da. Horretarako, sistema telematiko bat ipiniko dute eta erabiltzaileek txartel bat edo mugikorretako aplikazio bat erabili beharko dute pasabidera sartzeko.

Zornotzako jaiak Interneten bitartez ospatuko dituzte aurten

Uztailaren 16an jaietako abestia aurkeztuko dute. Egitarau osoa ANBOToren web orrian dago ikusgai

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Ohiko ereduak jende pilaketak ekarri ditzakeela-eta, Zornotzako Udalak Interneten bidezko programazioa prestatu du herriko jaiak ospatzeko. Askotariko ikuskizun kulturalak eskainiko dira udalaren web orrian, uztailaren 15etik

26ra arte. Herriko hainbat artistak parte hartuko dute. Besteak beste, Mikel Urdangarin musikariak, Markeliñe antzerki konpainiak eta Zornotzako musika bandak eskainiko dituzte emanaldiak. Egitaraua eta ordutegiak ANBOToren web orrian daude ikusgai.



Jendetza Zornotzako jaietan. 2017.



Gremioen gida

anboto

Zurgintza

leike aroztegia & diseinua
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

Iturgintza



UNAI GARAY
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

Instalataile baimendua

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

Iturgintza

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

Iturgintza



Ubide
iturgintza
Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

Iturgintza

ALDEKOA-OTALORA
iturgintza

BEROKUNTZA - AIREA - GASA
INDUSTRI MANTENTZEA

info@aldekoaotalora.com
Zubiaurre, 8 IURRETA
946 202 768

Arzubiola 10 B Industrialdea, 13-14 pab. IABADIÑO
944 071 791 - 492 852 779

Zurgintza



ATERPE AROTZAK
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com

Dekorazioa

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberritzeak
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**



Otxandioko plazan informazio puntu bat ipini dute udan herrira datozen bisitarientzat

Joan zen zapatuan inauguratu zuten eta uztailan, abuztuan eta irailean egongo da zabalik, asteko hainbat egunetan

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Otxandioko Udalak informazio puntu bat zabaldu du plaza nagusian, udan Otxandiora doazen bisitarietara herrian dagoen askotariko eskaintzaren berri emateko. Joan zen zapatuan zabaldu zituen guneak ateak, eta turisten zerbitzura egongo da hurrengo hiru hilabeteetan.

Uztailan eta abuztuan, eguazten eta eguen goizetan, bariku arratsaldeetan eta zapatu eta domeka goizetan egongo da zabalik; irailean, osterara, bariku arratsaldeetan eta asteburu goizetan. Udalak beren beregi horretarako kontratatu duen pertsona batek eskainiko du zerbitzua.

Azkenaldian herrira doazen bisitarien kopurua hazi egin de-

Azkenaldian herrira doazen bisitarien kopurua hazi egin delako ipini dute martxan zerbitzu berria



Otxandioko plaza nagusian dago informazio puntu berria.

lako ipini dute martxan zerbitzu berria. Bisitarientzat baliagarria izan daitekeen informazio guztia hantxe eskuratu ahalko da: herri inguruan naturaz gozatzeko dauden aukerak (ibilbideak, baso eta pagadiak...) eta herrian bertan

dauden interes-guneak. Horrez gainera, herriko komertzioen, ostalaritzaren, ostatuen eta antzerako kontuen gaineko informazioa eskuratu ahalko da informazio puntuan.

Herriko ostalaritzaren eta ostatuen gaineko informazioa eskuratu ahalko da

Otxandio biziguraz beti leloa ipini diote ekimen berriari. Osasun krisiaren ondoren, normaltasun berriari indarberrituta ekiteko herrian dagoen borondatea ere islatu gura izan dute mezuagaz.

Mainondoko haur parkearen ondoan dauden lau zuhaitz pozoindu dituzte



OTXANDIO • J.D.

Mainondoko haur parke inguruan hainbat zuhaitz daude eta eurentariko lau ihartuta daudela dirudi. Berez, hostoz jantzita egon beharko lirakeke. Norbaitek pozoindu egin dituelako daude horrela.

Zuhaitzak biluzik ikustean, udal arduradunak tokira bertaratu eta egoera aztertu zuten. Norbaitek zuhaitz horietan zuloak egin zituela ikusi zuten. Zuhaitz bakoitzak zulagailuagaz egiten diren moduko zazpi-zortzi zulo ditu enborrean eta sustrai inguruan. Zulo horietan zuhaitzak kaltetu dituen substantziaren bat isuri du norbaitek. Udalak jarrera horiek gaitzetsi ditu sare sozialetan. "Zuhaitzak guztiz lehortuz gero, jolastokiak gerizpea galdu eta umeak arriskuan egongo lirakeke. Natura zaindu egin behar da, ez suntsitu", diote.

Mikroenpresa eta autonomoentzat diru-laguntzak eskuragarri, Izurtzan

Udalak 22.000 euro ipini ditu osasun krisiak negozioei eragindako kaltea arintzeko

IZURTZA • J.D.

Udalak diru-laguntzak onartu ditu osasun krisiak Izurtzako mikroenpresei eta autonomoei eragindako kalteak arintzeko. 22.000 euroko diru atala sortu du helburu horretarako, kopuru hori handitzeko aukerari aterik itxi barik.

Urtean milioi biko edo hortik beheragoko fakturazioa duten enpresak hartuko dituzte mikroenpresatzat.

Eskabideak telematikoki —udal-webguneko erregistro elektronikoaren bitartez— edo udaletxera joanda egin daitezke. Laguntzen gaineko oinarri guztiak jasotzen dituen agiria udaleko webgunean kontsultatu daiteke.



Eskabideak udaleko webgunean edo udaletxean bertan egin daitezke.

14 umegaz, Mañarian aisialdirako ekimenak antolatuko dituzte uztailan

Katalamixon aisialdi elkarteak gidatuko ditu ekintzak

MAÑARIA • J.D.

Aurten ez da udalekurik egongo Mañarian, baina, horren ordez, umeei begirako aisialdi eskaintza antolatzea erabaki du udalak, Katalamixon aisialdi elkartearen bitartez. Ekimenak harrera ona izan

du eta 6tik 12 urtera bitarteko 14 umek eman dute izena. Aste honetan hasita, uztailako martitzen eta eguen guztietan batuko dira. Askotariko jokoak antolatuko dituzte herriko palzan, eta inguruetakoa mendietara ere joango dira.



Atzo egin zuten mendi irteerako irudia.



ANBOTOREN LAGUNAK

Euskarazko hedabideok mundua ikusteko modu propioa dugu, euskaratik eta euskaraz.

Orain, gure komunitatearen konpromisoa inoiz baino beharrezkoagoa dugu aurrera egiteko, euskarazko eta kalitatezko kazetaritza egiten jarraitu ahal izateko. Izan ere, bizi dugun egoera ekonomikoagaz **ANBOTO**ren jarduna kinka larrian dago.

Jarri ezazu zure alea euskarazko informazioa sortzen eta garatzen jarraitu dezagun, Durangaldea ezagutzen, bertan gertatzen denaren berri ematen eta gure ikuskera zabaltzen jarraitu dezagun.

ANBOTOren laguna izan gura duzu?

Urtean **30 euro** ordainduta, **ANBOTO** komunikazio proiektuari sostengua emango diozu.

Bidali mezua: anboto@anboto.org

Deitu: 94 681 65 58

Bete formularioa: www.anboto.org



Hauteskunde azken txanpa Durangaldetik Eusko Legebiltzarrera bitarteko lasterketan

Proiektu politiko desberdinak izan arren, Urkulluk, Iriartek eta Gorrotxategik abiapuntu bera dute: Durango

HAUTESKUNDEAK • EKAITZ HERRERA

Lasterketaren azken txanpa. Norgehiagoka. Sprint korrikaldia. Atzera kontaketa. Eta, amaieran, Eusko Legebiltzarra eta haren ondotik egituratuko den Eusko Jaurilaritza berritua. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako aukera politikoen lehiari ordu gutxi batzuk baino ez zaizkio geratzen. Eta bai, Eusko Legebiltzarrerako hautagai politikoei beti izan dute Gasteiz helmuga; baina gutxitan izan dute Durangaldea abiapuntu. Hain zuzen ere, Durangogaz lotura estua dute eskualdean babesik zabalena duten hiru alderdietako hautagaiak. Durangon bizi dira Iñigo Urkullu EAJko lehendakari-gaia, Maddalen Iriarte Euskal Herria Bilduko lehendakari-gaia eta Miren Gorrotxategi Ahal Dugu taldeko lehendakari-gaia. Ezinbestean, koronabirusak markatutako lehia politikoa izaten ari da euren, osasun krisialdiak eta haren

Iñigo Urkullu: "Noren esku ipiniko dugu herri honen gidaritzari heltzeko erantzukizuna?"

ondotik etortzekoa den krisialdi ekonomikoak baldintzatutakoa.

Iñigo Urkulluk koronabirusak eragindako testuinguru nahasia kudeatzeko "tresna argi" modura aurkeztu du EAJ. "Krisiaren lehenengo parteari aurre egin diogu, osasun krisiari. Orain, bigarren parteari heldu behar diogu, ekonomiaren eta enpleguaren krisiari. Noren eskuetan ipiniko dugu herri honen gidaritzari heltzeko erantzukizuna?", galdetu du Urkulluk kanpainan zehar. Hautagai jeltzaleak Zornotza bisitatu zuen ekainaren 27an, bertan mitina eskaintzeko.

Euskal Herria Bilduk eskualdeko hainbat tokitan aurkeztu du bere proiektu politikoa. Jasone Agirre abadiñarrak, Bizkaiko zerrendaburuak, koalizio subiranistaren proposamena defendatu du. Joan den astean agerral-

dia egin zuen Durangon Arnaldo Oteigaz batera. "Herri honek arlo nazionalen eta sozialean aurrera egiteko bermea da EH

Jasone Agirre: "gizarte zerbitzuen sistema publiko bakarra eta kalitatezkoa behar dugu"

Bildu", esan zuen, eta gaineratu zuen gizarte zerbitzuen "sistema publiko bakarra eta kalitatezkoa" sortu behar dela.

Ahal Dugu taldea buru duen Miren Gorrotxategik ere bisitatu du Durango kanpainan zehar. PSE-EEk, EH Bilduk eta bere taldeak osatu dezaketen balizko koalizio ezkertiar bat sortzeko ideia hauspotu du kanpainan zehar. Baina PSE-EEko Idoia Mendia hautagaiak behin baino gehiagotan errefusatu du ideia hori. Gainerakoan, osasun sistema publikoaren aldeko aldarriak egin ditu Gorrotxategik: "Osasun langileen lana txalotzea ez da nahikoa. Osasun sistema publikoa blindatu egin behar da aurrekontuetan, eta langile kopurua handitzea ere beharrezkoa da".

Miren Gorrotxategi: "Txalotzea ez da nahikoa; osasun sistema publikoa blindatu behar da"

Eitzaga, kanpainan

Hondakindegiko ezbeharrak oihartzun txikia izan du kanpainan. Carlos Iturgaiz PPko lehendakari-gaiaren esanetan, Ertzaintzaren txostenek "zantzu kriminalak" egon daitezkeela diote. Maddalen Iriarteren esanetan, kudeaketa eredu bat apurtu du Zaldibarkoak. "Agerian geratu dira kontrolik eza eta interes ekonomiko pribatuak. Premiazkoa da eredu aldatzeko, azaldu du.



Iñigo Urkulluk (EAJ) Zornotzan egin zuen mitina. Jasone Agirrek (EH Bildu) eta Miren Gorrotxategik (Ahal Dugu), Durangon.



Bizikleta martxaren irudia. Ainhua Iraola.



Parte-hartzaileen irudiak. Ainhua Iraola.

Dozenaka lagun bildu dira Abiadura Handiko Trenaren obren aurkako bizikleta martxan Durangaldean

AHTaren kontrako mobilizazioa jai giroan antolatu zuten Durangaldean, joan zen domekan; Bizikletariak Abadiñotik abiatu ziren. 'Bueltan gatoz' goiburua ipini zioten ekimenari

DURANGALDEA • A.M./J.G.

Bizikleta martxa Abadiñoko Txanporta plazatik abiatu zen, 10:00etan; Atxondon hamaiketako egin zuten, 11:30ean, eta Elorrion ekitaldia. Eguraldi aparta egin zuen eta hainbat gazte eta helduk hartu zuten bizikleta. Pedalkadaz pedalkada, "aspaldi

sortutako mugimendua berpiztea" gura izan zuten antolatzaileek bizikleta martxagaz. Konfinamendu sasoia AHTaren eraikitze lanak egiteko baliatu izana egotzi zieten agintariei mobilizazioa aurkezteko egindako prentsurrekoan: "Osasun sistema krisian murgilduta eta gu konfinatuta egon garenean,

**"Konfinatuta egon
garenean obrek aurrera
jarraitu dutela
salatu gura dugu"**

obrek aurrera jarraitu dutela salatu gura dugu. Kamioien joan-etorria eta inguruko lurretan sortzen ari diren eragozpenak jasaten ari gara herritarrok". Horrez gainera, gogoan eduki gura izan zituzten oraintsu eraitsitako Mendiolako Mendilibar-erdikoa eta Goxentziagirre baserriak eta Atxondoko maisu-maistren etxea.

AHTaren proiektua "diru xahuketa" dela adierazi zuten, eta lanak gelditzea "oraindino posible" dela. "Kontrakoa esaten diguten arren,

**"Atzera-bueltarik ez duela
sinestarazi gura badigute
ere, gehiena egiteko
dago oraindino"**

guztiak eta trena bera. Atzera-bueltarik ez duela sinestarazi gura badigute ere, gehiena egiteko dago oraindino, eta, beraz, gelditu daiteke, eta gelditu egin behar da", azaldu zuten ekimenaren bultzatzaileek prentsurrekoan.

Atxondoko eta Abadiñoko EH Bilduk Arartekora jo dute AHTaren lanetako "irregulartasunak" salatzeke

DURANGALDEA • A.M.

EH Bilduk Arartekoari idatzi dio, Atxondo eta Abadiño arteko tartean Abiadura Handiko Trenaren lanetan "egondako irregulartasunen" berri emateko. "Irregulartasunak izan ditzaketan" lau jardueraren berri eman diote.

EH Bilduren esanetan, lanek ez dute betetzen Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legea, "Atxondo-Abadiño tartean

**Abadiñon apirilean hasi
ziren AHTaren lanek ez
dutela udal baimenik
salatu du EH Bilduk**

erreserba banda" deritzon gunetik kanpora daude, eta Euskadiko Trenbide Sare Berriaren Informazio-azterlanean eta EAEko Trenbide Sarearen Lurraldearen Arloko Planean zehaztutako "bar-

nebidetik" kanpora ere badaude. Horrez gainera, Abadiñon apirilean hasi ziren lanek ez dutela udal baimenik salatu dute: "Udala egoera horren jakitun da, baina ez du bere legedia betearazten".

Azal dutako irregulartasunak aztertzeke eskatu dio EH Bilduk Arartekoari. "Gure ustez, jardun hauek administrazio-zuzenbide arloan ezeztatgarriak izan daitezke", esan dute.



Ane Intxausti Atxondoko zinegotzia eta Mikel Urrutia Abadiñoko zinegotzia.



GOBERNATZEKO PREST



MIREN GORROTXATEGI

Lehendakari hautagaia

<http://mirengorrotxategi.eus>



Zornotzako merkataritza sustatzeko ia 9.400 bonu saldu dira dagoeneko

Amorebono kanpainak 188.000 euroko eragina utzi du oraingoz

ZORNOTZA • E.H.

90 dira kanpainan parte hartzen duten negozioak, baina izena emateko aukera zabalik dago. Zornotzarrek erosketa-bonua 15 eu-

roan lortu, eta 20 euroko erosketa egin dezakete herriko dendaren batean. Zornotzako Udalaren kanpaina da Amorebono. 188.000 euroko eragina utzi du dagoeneko.

Norbanako eta enpresentzako laguntzak Iurretan

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretan bost euroko 2.000 bonu kaleratu dituzte beharizana duten familiak produktu fresko galkorrez hornitzeko. Koronabirusak eragindako behar sozio-ekonomikoei aurre egiteko udalak aho batez onartutako neurrietariko bat da hau.

Bestalde, udalak 75.000 euro gorde ditu autonomoei eta mikroenpresei laguntzeko. Pandemiak eragindako zailtasun ekonomikoei aurre egiten laguntzeko bideratuko dira laguntzak, eta, "bide batez, herriko jarduera ekonomikoari eusten laguntzeko".

Nevers ikastetxeak maila aurreratua lortu du heldutasun teknologikoan

DURANGO • JONE GUENETXEA

Eusko Jaurlaritzak teknologia berrien arloko heldutasun mailaren ikuskaritza egin du eta Nevers Ikastetxeak mailarik handiena lortu du: maila aurreratua. "Gure irakasleen eguneroko lanari eta zentroaren kudeaketa pedagogi-

koari eskerrak, abangoardian gaudete beti", azaldu dute ikastetxeko arduradunek. Ziurtagiria tresna teknologikoei lotuta dago, bai azpiegituren aldetik baita trebakuntza aldetik ere. Errekonozimendu hau lortzeko, ezinbestekoa da zentroa behar bezala egokituta egotea.

Herriko komertzioentzat 'Hemen bai' plataforma sortu dute Durangon

Komertzioentzat online denda bat ipintzea da helburua

DURANGO • AITZIBER BASAURI

Durango Udalak eta Dendak Bai elkarteak informazioa biltzen hasi dira 'Hemen bai' plataforma digitala sortzeko, herriko saltoki guztientzat balioko duen online

salmenta gunea eratzeko. Atari berria Durangon zerbitzuen sektorean lan egiten duten negozio txiki guztientzat egongo da eskuragarri. Irailaren 7rako martxan egotea aurreikusi dute.

Axpetarrak errogatiban joango dira Larranora, bihar

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Larranon dagoen Santa Barbara ermita Atxondoko lurretan dago, eta axpetarrek zaintzen dute auzolanean. Urtero bertara joaten dira errogatiban, eta aurten ere ez dute hutsik egingo. Zapatuan joango dira. Oinezkoentzako hitzordua 8:30ean ipini dute; Axpe-

ko plazatik irtengo dute. Ibilgailuz doazenak, oster, 10:15ean Urkiolan elkartuko dira. 11:00etan, meza egongo da, eta, ostean, hamai- ketakoa egingo dute. Ondoren, makila txapelketa egongo da.

Antolatzaileek segurtasun neurriak betetzea ezinbestekoa izango dela jakinarazi dute.

Jaime Urigoitia omendu dute Orozketan jesuitek urteotan auzoan egindako lana eskertzeko

Durango Jesuitak Bilbora joateak hainbat aldaketa eragin ditu eskualdean. Iurretako Orozketan auzoan, esate baterako, domeketan eskolan egiten zen meza bertan behera geratu da. 70eko hamarkadan Jesus Arizaga auzoko abadea hil zenean Jesuitek euren burua eskaini

zuten auzoan domeketako meza emateko. "Auzoan jende nagusi asko dagoenez, parrokiara joan beharrean auzoan meza ematen hasi ziren. Meza ostean auzokideak batu eta bizitza soziala ere egiten zen", azaldu du Inma Biritxinaga orozketarrak. Koronabirusaren krisiak eta jesuiten

agurrak meza bertan behera uztea eragin dute. Jesuitek hainbat urtean egindako lan hori eskertu guran, azken urteetan Orozketan meza eman duen Jaime Urigoitia omendu zuten auzokideek ekainaren 21ean. Aita Zabalak ere urte askoan meza eman zuen auzoan.



Ekainaren 21ean egindako omenaldiaren argazkia.

Gutuna

Zaldibarko euskaltzaleei deia

Aspaldikoa da gure herrian euskararen erabilerari buruzko kezka. Sarritan egin dugu berba gai honen inguruan parkeko guraso kuadrilletan, taberna giroan, bazkalosteko elkarriketetan, seme-alaben irakasleekin elkarriketatu izan garenean... Orain dela bi urte, aspaldiko partez, Zaldibarko hainbat euskaltzaleren artean ilusioa berpizten ikusi genuen Euskaraldia gure herrian martxan jarriko zela iragarri zen.

Aurreikuspen guztiak gaindituz, orduko Euskaraldia guztiz arrakastatsua izan zen. Guztira, 505 izan ziren ekimenen izena eman zuten zaldibartarrak: 356 ahobizi eta 149 belarriprest. Zaldibarren, ziur beste leku askotan ere, euskaltzaleen sarea aktibatzeak aukera aparta izan zen lehenengo Euskaraldi hura. Haren ostean, euskalgintzaren inguruan mugimendua handitzen ari zen garaian, etorri zen 21. Korrika, Klika leloarekin.

Gauza gutxi hobetu dira ordutik euskararen egoeran; esan daiteke, azken hileetan bizi izan dugun egoera berezi honek kaltea baino ez diola eragin gure hizkuntzari. Horregatik, Zaldibarko euskaltzaleengana zuzendu nahiko genuke hau esateko: Euskaraldia berriz ere martxan dagoela Zaldibarren, eta Zaldibarko euskaltzale guztion bultzada behar duela oraingoan ere. Animatu zaitzete batzorde eta lantaldeetan parte hartzera, guztion artean gure herria euskaldunagoa izatea lor dezakegu!

Irailean, zaldibartarrok ekin diezaiogun indartsu hurrengo Euskaraldia antolatzeari, batu ditzagun indarrak bide horri ekiteko Zaldibarko euskaltzaleok!

Galeanok zioen bezala, pertsona txiki askok, toki txikietan, gauza txikiak eginaz... alda dezakete mundua. Eta Zaldibartar askok, herri txikia izanik, gauza txikiak eginaz, aldaketa handiak eragin ditzakegu.

Aritz Gartzia Isasi-Idoia Marin Kortazar

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarreak barne).



GURUTZEGRAMA

Bete gurutzegrama behean
dauden irudien laguntzagaz.



1



2




3



4



5




6




7



8




9



10




11



ZEIN DA ZEIN?

Izozki bakoitzari bere itzala dagokio.




Topatu itzazu 7 diferentziak











DIFERENTZIAK



LABIRINTOA



DOMINOA



Marraztu itzazu
falta diren irudiak
lauki zurietan.

ITZALAK



Alboko itzal
hauetatik guztietatik,
zein da zuzena?



ASMAKIZUNA



Banderan jarri izan naute,
piraten ikurra,
haragirik gabeko hezurra,
izutien beldurra.

- Bizkarrezurra
- Humeroa
- Burezurra







TOPATU ITZAZU

Beheko irudian topatu itzazu zortzi objektu hauek.




LEKUZ KANPO

Lerro bakoitzean lekuz kanpo dagoen irudi bat dago. Zein da?

1						
2						
3						
4						
5						
6						

OSATU MARRAZKIA

Jarraitu zenbakiei eta marrazki osoa lortuko duzu.
Gero margotu gura duzun moduan.



**Durangaldeko azken
albisteak jaso gura
dituzu?**



**Batu
Anbotoko
whatsapp
taldera**

Bidali ALTA

688 635 041

telefono zenbakira



Izan zaitez berriemaile ere.

Bidali zure argazki eta bideoak

Musikaire

KONTZERTUAK **Elorrio :: Uztailak 11**

Anari

Anarik kontzertua eskainiko du Elorrioko Musikaire jaialdian. Aspaldian zuzenekorik jo barik egon eta gero, taldeagaz batera itzuliko da oholtzara. Abeslari azkoitiarrak cOUPAGES bildumako laugarren alea kaleratu du oraintsu, Thalia Zedekegaz

batera; Anarik abeslari estatubatuarren *Ladder* abestia moldatu du; kantuko berbak euskaratu egin ditu. Iaz elkarre-gaz egin zuten bira, eta bertan ondu zen orain kaleratu den lana. Zedekek Anariren *Harriak* abestia moldatu du. 22:30ean hasiko da kontzertua, San Roke inguruko zelaian.



UZTAILEKO KULTUR PROGRAMAZIOA

>> DURANGO KULTURAZ BLAI <<

10 barikua

> **Ekuru** MUSIKA

21:00 Plateruena Kafe Antzokia

16 eguena

> **Yogurinha Borova, Cecilia Paganini & Friends, Ibai Sanchez DJ** Bingo Boluda

21:00 Plateruena Kafe Antzokia

17 barikua

> **Amer i Africa Circ Cía** (Envà) ANTZERKI ZIRKUA

20:00 Kurutziaga ikastola

> **Carlos Herrero** 'Transhumante' MUSIKA

21:00 Plateruena Kafe Antzokia

19 domeka

> **Abarkas, Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus**

BERTSO SAIOA

13:00 Plateruena Kafe Antzokia

> **Durangoko Orfeoia** MUSIKA (Nagusientzat)

19:00 Landako eskola

24 barikua

> **Ana Galarraga** 'Bizitzaren laborategian' IPUIN KONTALARIA

11:00 - 17:00 - 18:00 Kurutzesantuko lorategia

> **Las XL** "Abandónate mucho" MUSIKA/ANTZERKIA

21:00 Plateruena Kafe Antzokia

25 zapatua

> **El Gran Dimitri** "The great circus show" ANTZERKIA

20:00 Landako eskola

> **Xampatito** "Só" ZIRKUA

20:00 Kurutziaga ikastola

30 eguena

> **Yogurinha Borova, Cecilia Paganini & Friends, Ibai Sanchez DJ** Bingo Boluda

21:00 Plateruena Kafe Antzokia

31 barikua

> **Iparbeltzok** MUSIKA

21:00 Plateruena Kafe Antzokia

>> MUSIKAIRE ELORRIO <<

10 barikua

> **Matthieu Saglio 4tet**

22:30 San Roke

11 zapatua

> **Anari**

22:30 San Roke

12 domeka

> **Zirika Zirkus - 'Txarlestrup'**

19:30 San Roke

17 barikua

> **Iker Piris & His Dual Electras**

22:30 San Roke

18 zapatua

> **Gari & Maldanbera**

22:30 San Roke

19 domeka

> **Goitibera - 'Yijaaa!!!'**

19:30 San Roke

24 barikua

> **Topa-k**

22:30 San Roke

25 zapatua

> **Oreka Tx**

22:30 San Roke

26 domeka

> **Circo chosco - 'Indartsuak'**

19:30 San Roke

31 barikua

> **Elkano Browning Cream**

22:30 San Roken

>> BERRIZ <<

10 barikua

> **Malas Compañías** 'Prozak'

18:00 Eskolako patioa

17 barikua

> **Cia Maintomano** 'Beldur barik'

18:00 Eskolako patioa

24 barikua

> **Musika Kutxa' eta 'Indala'** DANTZA IKUSKI-ZUNAK

19:00 Eskolako patioa

Zugaza zinema

• **LA MALDICIÓN DEL GUAPO**

barikua **10:** 19:30 / 22:00

zapatua **11:** 19:30 / 20:15 / 22:00

domeka **12:** 19:30

astelehena **13:** 18:30

martitzena **14:** 20:00

eguaztena **15:** 20:00

• **DÓNDE ESTÁS, BERNA-DETTE?**

barikua **10:** 19:30 / 22:00

zapatua **11:** 19:30 / 22:00

domeka **12:** 19:30

astelehena **13:** 18:30

martitzena **14:** 20:00

eguaztena **15:** 20:00

• **FIRST LOVE**

barikua **10:** 19:30 / 22:00

zapatua **11:** 19:30 / 22:00

domeka **12:** 19:30

astelehena **13:** 18:30

martitzena **14:** 20:00

• **ZAPATOS ROJOS Y LOS SIETE TROLLS**

zapatua **11:** 17:00

domeka **12:** 17:00

• **CORRE COMO UNA CHICA**

zapatua **11:** 17:00

domeka **12:** 17:00


• **¡SCOOBY!**

Eguaztena **15:** 19:00



Ostalaritza gida

anboto



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**

**Iurreta**



GAUARGI
Dantzari, 4 behea - IURRETA
Gosari bereziak: pintxoak, tostadak eta
etxeko bizkotxo eta "Brownie"-ak.
Astelehenetik ostiralera: Menu erdiak
6€-tan. Egunero zabalik. Domeketan eta
jaiegunetan rabak.

**Durango**



OLAJAUREGI JATETXEA
Kurutzia Kalea, 52 - DURANGO
Tel.: 946 200 864
www.olajauregi-jatetxea.com
Eguneko menuak, bereziak,
taldeentzakoak eta ospakizunak.
Egunero zabalik.

**Durango**



MIKELDI TABERNA
Kalebarria, 7 - DURANGO
Tel.: 944 073 988
Alde zaharrean kokatuta.
Pintxo gozoak eta giro alaia.

**Abadiño**



ABARKETERUENA
Iturritxo, 6 - Txanporta plaza, ABADIÑO
Tel.: 944 657 790
Eguneko menuak eta asteburuetakoko
menu bereziak. Goizetik pintxoak.
Giro oso ona.



Yogurinha Borovak eta Cecilia Paganinik boluda bingo bereziak egingo dituzte Plateruenean

Lau boluda bingo saio "xelebre" egingo dira Uda Kulturaz Blai! kultur egitarauaren barruan; 21:00etan hasiko dira saioak



Yogurinha Borova.

UDA KULTURAZ BLAI! • A.M.

Plateruena boluda gauz moztortuko da datorren astean, berriro ere. Baina oraingoan bingoan jokatzeko. Honako hau ez da ohiko bingoa izango. Musika eta

antzerkia batuko dituen bingoa eskainiko dute lau gauean. Bingo saioak eguenetan izango dira, eta urtean zehar egiten den boluda saioetan lez, barrea eragitea izango da ekitaldiaren helburua.

Cecilia Paganini arduratuko da bingoa zenbakiak esateaz, baina artista argentinarra ez da bakarrik arituko. Paganinik Yogurinha Borova artistaren laguntza edukiko du. Eurekin batera

Ibai Sanchez musika-jartzailea ere arituko da. "Yogurinha bingo saioetako anfitrioiak izango da. Kantak abestuko ditu eta performanceak ere egingo ditu disko-jartzaileagaz batera. Ni umore

ukitu bat ematen ahaleginduko naiz, inprobisatzen", azaldu du Cecilia Paganinik. "Ohiko bingo jolasa izango da, baina saio bakoitza bakarria izango da, abestien eta publikoaren arabera inprobisatuko dugulako. Oso ondo pasatuko dugu", gaineratu du.

Bertaratzen den bakoitzak kartoi bi jasoko ditu jokatu ahal izateko. Saioak 21:00etan izango dira eta Plateruena terrazan izango dira (eguraldi txarra eginenez gero, barruan egingo dira). bertaratzen direnek opari bereziak jasoko dituzte.

Saio bakoitza "bakarra" izango da, abestien eta publikoaren arabera inprobisatuko dute eta

Uda bete ekitaldi

Uztailagaz batera hasi zen Uda Kulturaz Blai! jaialdia Durangon. Los Cazahuates eta Africa taldeen kontzertuekin eta Haatik eta L'Atelier konpainien dantza emanaldiagaz hasi zen jaialdia. Segurtasun neurri bereziekin eman zaio hasiera uda kulturari. Uztailan eta abuztuan zehar ekitaldi gehiago egongo dira.

Malas Compañías antzerki taldeak familia osoarentzako pilula antidepresiboa proposatuko du Berrizko kultur egitarauaren barruan

ANTZERKIA • A.M.

Malas Compañíasen Prozac obra-ko protagonista "Ezohiko familia" bat da. Barrearen bitartez, ikuslearen alde gizatierrenagaz batu gura dute antzezleek. "Burrubako egoerez beteriko unibertsoan murgilduko gara, oharkabean familia horren parte bihurtu arte", azaldu dute antzerki konpainiak. Malas Compañíasek antzerkia eta zirkua nahasten ditu azken lan hone-

Uztailaren 10ean, Malas Compañíasek 'Prozac' eskainiko du, Berrizko eskolako patioan

tan. "Gure eskaintza antidepresibo osasuntsu bat da: barrea eta emozioa", diote. Gaur, barikua, 18:00etan izango da emanaldia, eskolako patioan.

Malas Compañías konpainiak dozena bat urte daramatza lanean. Urte hauetan, zazpi antzezlan sortu ditu, eta hau horietarikoa azkena da.

Antzerkia eta dantza

Uztailako gainerako bariku bietan ere izango du lekua antzerkiak (Maintomano konpainiaren *Beldur barik*, uztailaren 17an, eta *Musika kuxta* eta *Indala* dantza ikuskizunak, uztailaren 24an) Berrizen.



Malas Compañías.

hitz artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#salduenak

liburudenda

MIÑAN 1^a
Ametz Arzallus & Ibrahima Balde (Susa)

AITAREN ETXEA 2^a
Karmele Jaio (Elkar)

IBAIERTZEKO IPUINA 3^a
Oihane Amantegi (Elkar)

Eskaerak WhatsApp-ez eskatu ☎ 686 214 964, % Bizum-ez ordaindu eta etxean jaso

C E R A M I C A S
MACOBER

ZERAMIKA ETA GRESA
DEKORAZIOA ETA APAINKETA
ERAIKUNTZAKO MATERIALA

1300 m² BILTEGI - 800 m² ERAKUSKETA *Etorri eta ikusi*

Eitua indust., 65 BERRIZ - Tel.: 946 827 890 www.macober.com

Bulegorako
zigiluak
Fotolitoak

Betikoak
flexografía

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

“Zuzenekoetan tarte gehiago dago inprobisatzeko, libreago gaude hor”

Ekuru taldeak izen bereko diskoa aurkeztuko du gaur jendaurrean; 21:00etan Plateruena Kafe Antzokian arituko dira



MUSIKA • E.H. / A.M.

Ekuru taldea "gogotsu" dago taula gainera igo eta izen bereko diskoa durangarren aurrean aur-

kezteko. Izan ere, apirilean zen *Ekuru* jendaurrean aurkeztekoa, baina koronabirusaren agerpenak dena hankaz gora ipini zuen.

"Ez genuen ia esperantzarik diskoa jendaurrean aurkeztu ahal izateko; hala ere, udalak antolatuturiko egitarau honek irten du,

eta pozten gara gutaz gogoratu direlako", azaldu du Ander Erzilla Ekuru proiektuaren sortzaileak. Hainbat olerki eta testu oinarri

hartuta, jazz kutsuko doinuez jantzi zituzten diskorako; Luis Anselmi poeta bilbotarraren lana abiapuntu hartuta ekin zioten konposaketa lanei; beste kantuetariko baten hitzak Andoni Mujikarenak dira. "Niretzat ezinbesteko garrantzia du kantutaren barneko testuak edo poemak ondo helarazteak. Musikak hitzari lagundu behar dio, eta ez alderantziz", azaldu du Erzillak.

“**Ez genuen esperantzarik diskoa aurkezteko, eta pozten gara gutaz gogoratu direlako**”

Kontzertuan ere modu beretsuan arituko dira. *Ekuru* osatzen duten zazpi abestiez gainera, lantzen aritu diren beste piezaren bat ere aurkeztuko dituzte. "Zuzenekoetan tarte gehiago dago inprobisatzeko, hori oso gustuko dugu, eta libreago gaude hor", azaldu du Erzillak.

Zuzenekoaren garrantzia

Diskoaren grabaketan parte hartu zuten musikariak igoko dira Plateruena terraza ezarritako oholtza gainera. Ander Erzillagaz batera, Irati Bilbao (ahotsa), Mikel Nuñez (pianoa), Ander Garcia (kontrabaxua) eta Iñaki Jaio (bateria) arituko dira. "Desberdina da zuzenekoetan edo grabaketan jotzea. Publikoagaz sortzen den hartu-eman hori berezia da", gaineratu du Erzillak.

Gai librean

50 urteko abangoardia kulturala

Imajinatu Durangoko txoko batean hainbat jesarleku eroso daudela eta beste pertsona batzuekin elkartzeko aukera duzula, musika entzun, bideoak ikusi, aldizkariak irakurri eta arteaz eta kulturaz hitz egiteko toki bat dagoela. Gainera, toki berean aldi baterako erakusketak egiten dira puntako artistekin. Guztia dohainik.

Ba, imajinatu baino, egin beharko genuena gogoratzea da. Bai, izan ere, orain dela 50 urte inauguratutako Ezkurdiko Udal Kultura Aretoan hau guztia gauzatzen zen. 1970eko uztailearen 16an zabaldu zituen ateak Udal Kultura Aretoak, Leopoldo Zugazaren ideia aurrerakoi batean oinarrituta. Basilio Aranaren eta Jesús Astigarra-garen laguntzarekin, parke berrian



Garazi Agirrezabala Cabrerizo
Durangoko Museoa

1970eko uztailearen 16an zabaldu zituen ateak Udal Kultura Aretoak, Leopoldo Zugazaren ideian oinarrituta

50 urte igaro eta gero, omenaldi txiki bat egin nahi diegu Durangoko abangoardia kulturalaren ikurrei

areto bat izatea lortu zuen, ekintza kulturalak egiteko toki bat.

20 urtez 100 erakusketa baino gehiago egin ziren bertan. Chillida, Balerdi, Zumeta, Nestor Basterretxea,

Larrea, eta beste hainbat artista pasatu ziren bertatik. Hasi berriak eta herrikoak ahaztu gabe. Erakusketa aretoaz gain, 1985ean kultur animazioko areto bat ere zabaldu zen, herritarren eskura utziz kultur jakintza (literatura, musika, arte plastikoa, etab.). Erakusketa hauek 1.000 bisitari baino gehiago izatera iritsi ziren. Baina ezin dugu ahaztu gizartearen zati handi batek ez zituela guztiz ulertzen ideia abangoardista hauek. Ezkurdiko aretoa Arte eta Historia Museorekin "ama" kontsideratu dezakegu. Orain, 50 urte igaro eta gero, omenaldi txiki bat egin nahi diegu Durango abangoardia kulturalaren ikur bilakatu zuten guztiei: aretoko langileei, artistei eta bertatik pasatu ziren bisitariei. Uztailearen 17tik 26ra bitartean, Ezkurdiko erakusketa aretoan itxarongo zaituztegu.



Juan Basabe Baqué
Futbol atezaina. AEBetan
dabil ikasketak egiten eta
futboleko jokatzen
Durango | 2001

“Geroago eta gazte gehiago doa AEBetara, ikasketak eta kirola uztartzeko eskaintzen dituzten erreztasunengaitik”

lazko abuztuan, Jesus Basabe Texas estatuko unibertsitate batera joan zen, hango futbol taldean jokatu eta enpresazuzendaritzako ikasketak egitera. Handik beste salto bat eman du Ipar Karolinako beste unibertsitate batera

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Ameriketako Estatu Batuetan, futbolarekiko zaletasuna hazten ari da urterik urtera. Geroago eta kirol errentagarriagoa da. Erronka da zelan parekatu interesean emandako hazkunde zelai barruan eskaintzen den ikuskizunagaz; hau da, zelan

hobetu futbolari estatubatuarren batez besteko maila. Bada, dakite-nengandik ikasita. Horretarako, talentu gazteak erakartzeko, unibertsitate askok diru-laguntza sistema tentagarriak dituzte eta erraztasunak eskaintzen dituzte ikasketak kirolagaz uztartzeko. Jesus Basabe

horrelako aukera bati eskerrak joan zen harantza iazko abuztuan.

Donald Trumpek asteon iragarri du ez dietela bisarik emango atzerriko ikasleei, baldintza konkretu batzuk bete ezik. Zein da zure egoera?

Trumpen iragarpena jakin bezain laster, hango unibertsitateko entrenatzaileagaz hartu-emanetan ipini nintzen. Joan naitekeela esan zidan, nire klaseetako zati bat baino ez delako Internetez. Hau da, klase batzuk presentzialak dira. Beraz, alde horretatik behintzat ez dudala arazorik izango esan zidan. Hori bai, ikusi egin beharko da aurrerago zelan dagoen han egoera edo hegazkin bidezko bidaiak baimenduta dauden.

Koronabirusak eragindako koarentena hemen pasatzea erabaki zenuen.

Martxoan zehar, unibertsitateko aurrez aurreko klaseak bertan behera uzten hasi ziren eta, gainera, hemen egoera okerrerrantz zihoan. Koarentena berdin-berdin igaro beharko

nuen han edo hemen, eta berandu baino lehen itzultzea erabaki nuen.

Une honetan zein da hango egoera? Zer kontatzen dizute hango lagunak?

Murriztapen batzuk dituzte, baina kasik ohiko bizitza egiten ari dira. Esango nuke hasieratik dabilzala horrela. Kanean edo euren etxeetan elkartzen ikusi ditut, sareetan elkarbanatu dituzten irudietan. Koronabirus kasuak gorantz doazela ikusten dut oraindino, baina ez dakit ba... Arduratuta daude, baina ez dut somatzen aparteko beldurrik.

Zelakoa da han futbolaren egitura unibertsitate mailan?

Ameriketako Estatu Batuetan futbolako maila bi daude unibertsitate mailan: NCAA eta NAIA. Azken hori da maila nagusia. Ni NCAAn aritu naiz orain arte. Ematen zidaten bekagaitik eta orain urte bi Estatu Batuetako txapeldun geratu zirelako aukeratu nuen Texaseko unibertsitate hori. Aukera ona zen.

Hemengo futbolagaz alderatuta, zelakoa da han duten maila?

Egunetik egunera, hobea. Geroago eta gazte gehiago doa AEBetara ikasketak eta kirol jarduerara uztartzeko eskaintzen dituzten erreztasunengaitik. Gainera, bekek ikasketak ordaintzen laguntzen dute. Ez dut erraztasun horiek eskaintzen dituen beste herrialderik ezagutzen. Munduko futbol talde handietako harrobietan dabilzan gazte askok ere harako bidea hartu dute.

Zure taldean nazionalitate askotako jendea dago?

Nire taldean hegoafrikarrak, italiarrak, ingelesak, mexikarrak... egon dira. Atera kontuak hortik.

Zelakoa da hango bizimodua?

Hango bizitzeko erak ez du zerikusirik hemengoagaz. Goizetan kafe bat lasai hartzea edo lagunekin frontonisean jokatzea... Han ez dut horrelako gauzarik ikusi. Zer egiten duten? Merkataritza gune handietara joaten dira, edo kirola ikusten dute. Eta kotxea hartzen dute edonora joateko. Nik askoz gurago dut hemengo bizitzeko era. Gero, lurraldea bera ere desberdina da. Texasen, kalera irten, zeruertzera begiratu eta ez dago ezer. Kolore horiko lautada baino ez, pelikuletan agertzen den modukoa. Ez dago hemengo mendirik eta paisaia berderik.

Horregaitik erabaki zenuen tokiz aldatzea?

Bai, beste zerbait gura nuen. Ipar Karolinako unibertsitatearen berri izan nuen. Han entrenatzaile espainiar bi eta beste ingeles bi dabilzta. Nire moduan ikastera joan ziren, eta orain han bizi dira. Nire promozio bideoak gustatu zitzaizkien eta fitxatu egin ninduten. Ilusionatuta nago. Batetik, unibertsitate hartako taldea NCAA mailan dabilako, eta, bestetik, hango paisaiak hemengoagaz antz handiagoa duela dirudielako.

Durango Kulturean hezi zinen futbolari moduan eta 17 urteagaz debutatu zenuen lehen taldean. Zelan gogoratzen duzu?

Federazioen arteko Kopan izan zen, Real Unionen kontra. Egia esanda, lasai zelairatu nintzen, konfiantzagaz. Ez dut gogoratzen horrelako egoeretan ohikoa den urduritasunik. Kultureko maila guztietan aritua naiz eta lehen taldeagaz debutatzea oso polita izan zen.

IURRETAKO UDALAK DIRULAGUNTZAK EMANGO DIZKIE AUTONOMOEI ETA MIKROENPRESEI

Eskaerak aurkezteko epea
uztailaren 27ra arte dago zabalik

Informazio gehiago iurreta.eus webgunean



Herriko gudarien kalea, 10 behe - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404



Mikel Garitaonandia iazko partidu batean jokalariei aginduak ematen. **ZORNOTZA SASKIBALOI TALDEA**

Garitaonandiak eta Estalayok Zornotza Saskibaloia Klubean jarraituko dute

Klubeako entrenatzailea eta kapitaina denboraldi berriari begirako zutarrietariko bi dira

SASKIBALOA • JOSEBA DERTEANO
Sarritan, jokalar berriak ekartzea baino garrantzitsuagoa izan daiteke daudenei eustea. Ildo horretatik, Zornotza Saskibaloia Taldeak aste honetan iragarri du Mikel Garitaonandia entrenatzaileak eta Joseba Estalayo kapitainak taldean jarraituko dutela hurrengo denboraldian. Batak zein besteak taldean duten pisua ondoko datu biek islatzen dute: Garitaonandiak bederatzigarren urtea beteko du zornotzarren aulkian; Estalayok 183 bider jantzi du klubeako kamiseta eta bera da federazioen ligetan

Zornotzagaz partidurik gehien jokatu duen jokalaria. Garitaonandia 2010ean heldu zen kluber. Lehenengo urte bietan

Garitaonandiak bederatzigarren denboraldia beteko du lehenengo entrenatzaile lez

bigarren entrenatzaile aritu eta gero, 2012an entrenatzaile nagusi bihurtu zen eta lehenengo ahaleginean Zilarrezko Ligara igo zuen

taldea. Ondoren, 2016an, taldea Urrezko Ligara igotzetik urrats batera geratu zen.

Esperientzia eta gaztetasuna
Estalayok beste urtebeterako luzatu du kontratua eta seigarren denboraldia beteko du Zornotzan. Taldeko beteranoetarikoa den arren, oso gaztea da oraindino. 25 urte ditu. Garitaonandiak Estalayoren garrantzia azpimarratu du. "Gure puzzlea osatzeko lehenengo pieza da. Bere moduko jokalaririk dira gure proiektuari zentzua ematen diotenak", adierazi du.

Fitxaketa bi eginda, kulturalak hegaleko jokoa indartu du

Danel Ibarrondo eta Joseba Beitia Durango klubera batu dira

FUTBOLA • J.D.
Euskal Herriko ligak bertan behe-
ra geratu dira, baina horrek ez du
esan gura futbol klubek zereginik
ez dutenik. Batez ere, bulegoko
lanean zentratuta dabilta eta
Durangoko Kulturala da horren
adibide. Taldea indartzeko fitxa-
keta biren berri eman du azken
egunotan.
Danel Ibarrondo da eurretari-
ko bat. Ezker hegalean jokatzen du
eta Eibar klubean aritu zen iaz.
Aurretik, Amurrión ibilitakoa
da, Hirugarren Mailan. Gazte-

gaztetan, kadeteetako lehenengo
urtean, Durangoko Kulturalen
jokatu zuen. Joseba Beitia da bi-
garren fitxaketa, eta honek ere
hegaleko jokoa indartuko du. 20
urteko jokalaririk gaztea Debako
Amaikak Bat taldeetik dator.

**Ibarrondo Eibar klubetik
dator eta aurretik
Amurrión ere jokatu zuen,
Hirugarren Mailan**



Danel Ibarrondo Eibar eta Amurrión taldeetan aritu da.

Jokaldia

Mandela, herria batu zuen gizona

Ekainaren 25ean mende laurdena bete zen Hegoafrikak Errugbi Mundiala irabazi zuenetik, eta balentria horren bidez, Nelson Mandelak bere herrirako adiskidetze historikoa ekarri zuen. Nelsonek helburu bat zuen: herria egitea, non hegoafrikar guztiek bere lekua izango zuten, larrazalaren kolorea edo kolorea kontuan hartu gabe. 1995ean Hegoafrikari egokitu zitzaion Errugbi Mundiala antolatzea. Springbok delakoak zuriaren nagusitasunaren ikurrik ezagunena ziren herrialde hartan. Jokalaririk guztiak zuriak ziren, bat izan ezik: Chester Williams. Eta hori gutxi balitz, afrikarrak ez ziren ordezkatzuta sentitzen, Chester apartheid armadan soldadu izan zelako. Giroa ikusirik, edozein pertsonak halarako kirol jardueran nabardura sozialak

"Edozein pertsonak arriskuak bakarrik ikusiko lituzke, baina Mandelak herria batzeko aukera bat ikusi zuen"

Springboktarren kapitaina, Pienaar, konbentzitzea lortu zuen eta bere aliatuak preziatuena izan zen

eta arriskuak bakarrik ikusiko lituzke, baina Mandelak herria batzeko aukera bat ikusi zuen errugbian. Bi helburu zituen buruan: gehiengo beltza konbentzitzea Springboktarrek hegoafrikar guztiak ordezkatzuten zituztela eta denon betebeharra zela beraiek babestea eta animatzea; eta bestetik, zuriak konbentzitzea, Mandelak ez zuela mendekua bilatzen eta guztien alde gobernatu

nahi zuela, zuriak eta beltzak berdintasunean. Hori lortzeko kanpaina suttsua egin zuen, agerraldi publikoetan Springboktarren txapela askotan erabiliz. Hasi-
sieran, bere jarraitzaileek ez zuten ondo ikusi, ezta ulertu ere, baina Nelsonek behin eta berriro aldarrikatzen zuen mezu berdina, "hau da gure taldea eta harrotasunez hitz egin beharko genuke beraietaz". Bide batez, presidenteak Springbotarren kapitaina, Francois Pienaar, konbentzitzea lortu zuen, eta bere aliatuak preziatuena izan zen.
Hegoafrikak irabazi zuen mundiala eta Nelson Mandelak Pienaar-i eman zion txapeldunen kopa. Une horretan elkarriketa txiki bat egon zen bi lagun artean; lekuko batzuek esaten dute Mandelak kapitainari esan ziola: "Eskerrik asko, Francois, gure herriarengatik egin duzunagatik", eta kapitainaren erantzuna: "Ez, presidente jauna, eskerrik asko gure herriaren alde egin duzunagatik".



Gotzon Gomez Barrenetxea
Errugbia

DURANGALDE



**Eitua auzoa
(Berriz)**

Berrizko Eitua auzoan ikuspegi zoragarri hau aurkitu daiteke. Arte erraldoiaren itzalpetik Anbotoko mendilerroaz gozatu daiteke. Ibilaldi zoragarria egiteko aukera dago inguruan, Andikona eta Sarriatik igarota.

KO TXOKOAK ?

Etxano auzoko iturria

Izaera propioa duen auzoa da Etxano. Herrigunean iturri elegantea du. Amorebieta eta Etxano elizateak 1951n bildu ziren, gaur egun ezagutzen dugun Amorebieta-Etxano edo Zornotza sortuz.



IXA

Ixa kapitulu laburrez osatutako fikziozko websail bat da. Lehen denboraldiak sei atal ditu, sei istorio independente, egungo bizimoduaren arriskuekin eta denboraren pertzepzioarekin jolas egiten dutena. Ehun lagun inguruko lantaldeak parte hartu du mugikorretarako espreski egindako sail honetan, euskal aktore ezagunek barne.



Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA



**GOZATU
GOZOTEGI-OKINDEGIA**

Ermodo, 11. DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia



Gerezietxeko txikiek 3 urte bete dauz. Jarraitu zorionsue izeten. Maite zaitugu!



Zorionak, **Laureano!** Elorrio, Durango eta Berrizko Kick Boxing ikasleen partez! Jarraitu beti bezain alai eta maisu handia izaten. Besarkada handia, maite zaitugu!

Eguraldia

ZAPATUA 23° / 14°

DOMEKA 26° / 14°

ASTELEHENA 26° / 16°

MARTITZENA 21° / 15°

EGUAZTENA 21° / 15°

EGUENA 27° / 14°

BARIKUA 28° / 17°

Botikak

BARIKUA, 10 · 09:00-09:00	MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA	09:00-14:00	09:00-22:00	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO	09:00-13:30	IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	EGUAZTENA, 15 09:00-09:00
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA	CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO	09:00-22:00	ASTELEHENA, 13 · 09:00-09:00	MUGICA Andra Maria 9 - DURANGO
09:00-22:00	NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	DE DIEGO Intxaurrondo 22. - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO	DOMEKA, 12 · 09:00-09:00	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	EGUENA, 16 · 09:00-09:00
ZAPATUA, 11 · 09:00-09:00	DE DIEGO Intxaurrondo 22. - DURANGO	BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO	MARTITZENA, 14 · 09:00-09:00	BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO
ETXEARRIA Montevideo etorb. 2. - DURANGO	LARRAÑAGA-BALENTZIAGA Berrio-Otxoa 6 - ELORRIO	MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA	SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19 - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

LANBIDE HEZIKETA



94 616 90 02
mbengoa@leartik.eus



Matrikula

UZTAILAREN 13tik 17ra

“Lan asko egin eta gero, gaztaren merkatua zabaltzea lortu dugu”

Ruben Markina mallabitarrak Axeleku gazta ekoizten du; etxeko behien esneagaz egiten du, eta, ahal duen neurrian, antzezle lanetan jarduteko denbora hartzen du



Ruben Markina Ostolaza
Behi-esneagaz egiten du gazta
Mallabia | 1974

MALLABIA • AITZIBER BASAURI

Ruben Markina esne ekoizlea izan da urteetan, eta orain bospasei urte, egoera ekonomikoak bultzatuta eta osagarri ekonomiko moduan, gazta ekoizten hasi zen, behi-esneagaz. Orain, negozioaren ardatz du Axeleku gazta. Salmenta zuzena eginez eta azoketan saltzen du. Markinako Abarka antzerki taldean jarduteko ere ateratzen du denbora Markinak.

Tradizioz, gurago dugu ardi-gazta?

Borroka handia dugu. Askok ardi-gazta baino ez dute aintzat hartzen, ezaugarri konkretu batzuk dituen gazta. Lan asko egin eta gero, gaztaren merkatua zabaltzea lortu dugu

azken urteetan. Behi- edo ahuntz-esneagaz egindako gazta produzi-tzen hasi gara. Ipar Euskal Herrian milaka gazta mota daude.

Zein ezaugarri ditu zuen gaztak?

Gazta erdi ondua egiten dugu. Oso suabea, koipetsua eta oso erraz jatekoa. Baina laban deseginez gero indar handiko zaporea hartzen du.

Zuk zein gazta gurago duzu?

Gazta gutxi jaten dut. Ez naiz batere zalea. Urte askoan ez dut probatu ere egin, higuinduta. Etxean, aita Idiazabal gazta jaten zuen.

Gaztagilea zara ofizioz eta antzezlea afizioz. Markinako Abarka antzerki taldean ari zara. Zer dela-eta hasi zinen?

Kasualitatez, orain bost bat urte. Ez nuen neure burua horretan ikus-

ten, baina proba batzuk egin eta gustua hartu nion. Sortze prozesua oso polita da, eta gogorra. Emanaldien aurreko lantze prozesua gustatzen zait gutxien.

Zelan eragin dizu koronabirusaren krisiak gaztagile moduan?

“**Nire itxuragaitik, astakiloaren edo maltzuraren papera egitea tokatu zait. Eta gogoko dut.**”

Kalte egin digu, baina ondo mol-datu gara. Orain askoz ere eskari gehiago ditut eta produkzioa gehi-tuko dut. Berrogeialdian ohiko bezero batzuk gazta bi hartzetik zortzi hartzera pasatu dira, adibi-dez. **Behi-esnearen iragarki bategaz eman zenituen lehenengo pausoak.**

Bai. Orduan sortu zitzaidan ja-kin-mina. Bigarren bat etorri zen gero, eta oso gustura ibili nintzen. Bada, ikastaro batzuk egin nituen, Ainhoa Aierbegaz lehenengo eta Pablo Malogaz gero. Orduan ez nuen pentsatzen antzerki mun-duan sartuko nintzenik, Abarka taldean hasteko aukera etorri arte.

Film laburretan ere parte hartu duzu. Bira Produkzioakeko lagun-en bi-tartez zenbait lanetan parte hartu dut: iaz, *Baztango (H)ilbeltza* euskal nobela beltzaren asterako iragar-kian parte hartu nuen, eta Ordi-ziako StarBlues taldearen *Zeure jabe* bideoklipetan. Aurretik, *Tentación* (2014) film laburrean parte hartu nuen. Azkenengoz, *Animal Lovers* film laburrean parte hartu dut, ikus-entzunezkoen prestakuntza-rako eta ekoizpenerako Larrotxene Bideoko (Donostia) ikasle batzuek egindakoan. Orain aste bi estrena-tu zuten, Donostiko Antzoki Zaha-rrean. Figurante lana ere egin dut, *Fuego*, *Handia*, *Operación Concha* eta *Oreina* filmeetan.

Pertsonaia batek hala eskatuz gero, moztuko zenuke bizarra?

Bai, baina ernegatuta. Orain pare bat urte moztu nuen. Aurretik, arrosa kolorez tindatu nuen, alaba gazteenak aupada bota eta gero. Moztu nuenean konturatu nintzen bizarra behar nuela. Bizarrik barik Gru ematen dut (*Mi Villano Favorito*).

Badago pertsonairen bat bereziki gustatu zaizuna?

Denak. Hala ere, ez nauzue dotore plantagaz ikusiko! Itxuragaitik, as-takiloaren edo maltzuraren pape-ra egitea tokatu zait. Eta gogoko dut. **Zein da gatxen egin zaizun papera?**

Norberarena da paperik gatxena. **Oso mozturro zalea ere bazara...** Oso inauterizalea naiz, bai. Iaz, Ko-rrika 20 Mallabitik pasatu zenean ere mozturrotu nintzen; azken mo-mentuko kontua izan zen, eta ba-rre batzuk egin genituen. 50 metro baino ez nituen korrika egin.

Lau hortza

Bixente
Aizpurua
Irakaslea



Normaltasun berria Superman eta Superwoman gine-lakoan bizi izan gara, baina ikuse-zina den birus nano batek begiak zabaltu eta errealtate gordinera ekarri gaitu. Birus honek argi utzi digu Ama Lurrean bizi garenen artean makalenak eta ahulenak pertsonok garelako.

Egoera berri honek bizimodua beste era batera antolatzea behar-tzen gaitu, bakuna lortu arte bere eraginpean bizi izan beharko garelako.

Aldaketa handiak egin beharko dira osasun alorrean. Baliabide guztiak jarri beharko dira gaixo-tasunak ikertzeko eta sendagaiak lortzeko, langileak eta gaixoak zaintzeko eta hauek sendatzeko.

Elikagai osasungarriak, prestu, gure eskuetan jartzeko gure hur-bileko abeltzainen eta nekazarien lana bultzatu beharko da. Gure ume garaian baserriak ia dena ematen zigun eta bagenekien zer jaten genuen, baina orain? Auska-lo nongo eta nolako jakiak jaten di-tugun. Herri bakoitzeko dendetan Km Oko produktuak kontsumitu behar dira ingurumenak eta gure osasunak eskertuko digutelako.

Etxebizitzaren modeloak aldatu beharko dira espazio zabalekin, konfinamendu posible berri baten aurrean etxe barruan preso ez sentitzeko.

Mugikortasuna eraldatu behar-ko da bizikletei eta oinezkoiei leku gehiago emateko.

Etxean lan egin edo ikasi ahal izateko sare berri eta fidagarria-goak jarri beharko dira.

Maskarilla erabiltzen eta eskuak sarri garbitzen ohitu beharko gara.

Gure alde dena ematen duten eta honegatik edo horregatik egoitze-tan dauden senitartekoak duin-tasunez eta errespetuz zaintzeko kontrol zehatzak jarri beharko dira.

Pandemia honekin zerbait ikasi izan badugu jarri gaitezen mar-txan geroari behar den bezala erantzun ahal izateko.



DURANGO KABILDUOSTE

Aurki Durangon eraikinak egingo dira, **Kabilduoste zona** eskusiboan, San Roke auzoan, erdigunetik eta Ezkurdi plazatik pauso batera.

Montevideo-ko arrakastaren ondoren proiektu berria Durangon,

KABILDUOSTE

Informa zaitez!

946 462 041

sukia
Zure etxean zaudte. Estás en tu casa

www.sukia.com